

**Gipuzkoako basoen eta basogintzaren
egungo egoerari buruzko Ponentzia.**

**Ponencia sobre la situación actual de los
bosques y la silvicultura en Gipuzkoa.**

TXOSTENA

AURKIBIDEA:

1. SARRERA.

2. ABIAPUNTUA: AMIA.

- 2.1. INDARGUNEAK.
- 2.2. AHULGUNEAK.
- 2.3. MEHATXUAK.
- 2.4. AUKERAK.

3. ETORKIZUNeko GAKOAK.

3.1. BASOA INGURUMENA BABESTEKO ETA KLIMA ALDAKETAREN AURKA BORROKATZEKO.

3.1.1. Baso plangintza, lurraldea antolatzeko tresna gisa.

- 3.1.1.1. Baso misto atlantikoa.
- 3.1.1.2. Jabetza pribatuaren estatutua.

3.1.2. Baso kudeaketa jasangarria.

- 3.1.2.1. Hostozabalak.
- 3.1.2.2. Koniferoak.
- 3.1.2.3. Espezie mehatxatuen babesa.
- 3.1.2.4. Baso-larreetako artzaintza.

3.1.3. Suteen aurkako babesa.

3.1.4. Fiskalitatea.

3.1.5. Basogintzako I+G+Ba.

3.1.6. Lankidetzaren publiko-pribaturako mekanismoak.

3.2. BASOA BIOEKONOMIA ZIRKULARRA BULTZATZEKO.

3.2.1. Zura bultzatzea 0 km edo tokiko lehengai berriztagarri gisa.

3.2.2. Balio erantsi handiko produktuak.

3.2.3. Zura eraldatzeko industria sektorea.

3.2.4. Lankidetzaren publiko-pribatua.

3.2.5. Bioekonomia enplegua sortzeko elementu gisa.

3.2.6. Belaunaldi erreleboa.

3.2.7. Ikerketa eta teknologia.

3.3. BASOA PERTSONEN ONGIZATE INTEGRALA SUSTATZEKO.

3.3.1. Zerbitzu ekosistemikoak.

INFORME

INDICE:

1. INTRODUCCIÓN.

2. PUNTO DE PARTIDA: DAFO.

- 2.1. PUNTOS FUERTES.
- 2.2. PUNTOS DEBILES.
- 2.3. AMENAZAS.
- 2.4. OPORTUNIDADES.

3 CLAVES DE FUTURO.

3.1 EL BOSQUE PARA PROTEGER EL MEDIOAMBIENTE Y LUCHAR CONTRA EL CAMBIO CLIMÁTICO.

3.1.1. Planificación forestal como herramienta de ordenación del territorio.

- 3.1.1.1. Bosque mixto atlántico.
- 3.1.1.2. Estatuto de la propiedad privada.

3.1.2. Gestión forestal sostenible.

- 3.1.2.1. Frondosas.
- 3.1.2.2. Coníferas.
- 3.1.2.3. Protección de especies amenazadas.
- 3.1.2.4. Silvopastoreo.

3.1.3. Protección contra incendios.

3.1.4. Fiscalidad.

3.1.5. I+D+i Forestal.

3.1.6. Mecanismos de colaboración público-privada.

3.2 EL BOSQUE PARA IMPULSAR LA BIOECONOMÍA CIRCULAR.

3.2.1. Impulso de la madera como materia prima renovable y km 0 o local.

3.2.2. Productos con alto valor añadido.

3.2.3. Sector industrial de transformación de la madera.

3.2.4. Colaboración público-privada.

3.2.5. Bioeconomía como elemento generador de empleo.

3.2.6. Relevo generacional.

3.2.7. Investigación y Tecnología.

3.3 EL BOSQUE PARA PROMOVER EL BIENESTAR INTEGRAL DE LAS PERSONAS.

3.3.1. Servicios ecosistémicos.

- | | | | |
|----------|--|----------|-----------------------------------|
| 3.3.1.1. | Lurzorua. | 3.3.1.1. | Suelo. |
| 3.3.1.2. | Ura. | 3.3.1.2. | Agua. |
| 3.3.1.3. | Paisaia. | 3.3.1.3. | Paisaje. |
| 3.3.1.4. | Osasuna eta aisia. | 3.3.1.4. | Salud y ocio. |
| 3.3.1.5. | Fauna eta flora. | 3.3.1.5. | Fauna y flora. |
| 3.3.1.6. | Airearen kalitatea hobetzea. | 3.3.1.6. | Mejora de la calidad del aire. |
| 3.3.2. | Zerbitzu ekosistemikoengatik ordaintzea. | 3.3.2. | Pago por servicios ecosistémicos. |
| 3.3.3. | Kontzientziazioa eta sentibilizazioa. | 3.3.3. | Concienciación y sensibilización. |
| 3.3.3.1. | Basogintzari prestigioa ematea. | 3.3.3.1. | Prestigiar la actividad forestal. |

1. SARRERA.

1. Gipuzkoako Batzar Nagusiek ponentzia bat sortu dute Gipuzkoako basoen eta basogintzaren egungo egoera ebaluatzeko. Haren egitekoen artean daude, esate baterako, basogintzak emandako zerbitzuen azterketa xehatua egitea, Gipuzkoako gizarteak klima aldaketaren eta biodibertsitate galeraren aurrean dituen itxaropenei buruz ikertzea, eta beharrezko politika eta tresnak ebaluatzea, eskaera horiei erantzungo dien etorkizuneko basogintza garatzeko.
2. 2024ko apiriletik irailera, hainbat erakundetako ordezkarien eta arlo askotako adituen 23 agerraldi izan dira. Guztiek ere esperientzia handia dute ponentzia honek aztergai duen gaien, hau da, basogintzak eta basogintza politikak Gipuzkoako Lurralde Historikoan duten egoeran. Haien ekarpenak oso interesgarriak eta erabilgarriak izan dira, eta gogotik bete dituzte aurreikuspenak.
3. Gaur egungo testuingurua krisi klimatikoak eta Europar Batasunak bultzatutako eredu ekonomikoaren aldaketak markatuta dago, eta helburua da hazkunde ekonomikoa erregai fosiletatik bereiztea eta baliabide naturalen erabilera efizientea eta jasagarria sustatzea. Trantsizio berde adimentsu horrek erabaki politikoak eragin ditu maila guztietan — eskualdeetan, estatuan eta nazioartean—, kontuan izanik basoek funtsezko eginkizuna dutela; hala, zuzenean edo zeharka eragiten zaio basogintza sektoreari.
4. Era berean, 2030erako itsaso eta lehorreko habitaten % 20 berreskuratzeko helburua ezarri du Europako Batasunak, eta 2050erako beharra duten habitat guztiena. Estatu kideek hondatutako habitaten % 30 berreskuratzeko dute 2030erako, % 60 2040rako eta % 90 2050erako.
5. Horrek hainbat balio eta eskakizun dakartza berekin, bai basoei dagokienez, bai egurraren erabilerrari dagokionez, eta itxaropen kontrajarriak sortzen dira batzuetan; izan ere, zenbaitetan modu mugatuan ulertzen dira basoen eta basogintzaren konplexutasuna, errealitatea eta aniztasuna, bai eta basogintza sektorearen epe luzeak ere.
6. Informazio guztia eta txostengileek agerraldietan emandako iritziak aztertu ondoren, ponentzia honek Gipuzkoako lurraldearen etorkizuneko baso politikaren oinarriak ezartzea du helburu.


2. ABIAPUNTUA: AMIA MATRIZEA.

1. INTRODUCCIÓN.

1. Las Juntas Generales de Gipuzkoa han creado una Ponencia con el objetivo de evaluar la situación actual de los bosques y la silvicultura en Gipuzkoa. Sus tareas incluyen un análisis detallado de los servicios proporcionados por la silvicultura, la investigación sobre las expectativas de la sociedad guipuzcoana ante el cambio climático y la pérdida de biodiversidad, y la evaluación de políticas e instrumentos necesarios para desarrollar una silvicultura futura que responda a estas demandas.
2. Desde abril a septiembre de 2024 han tenido lugar 23 comparecencias de representantes de diversas entidades y expertos de diferentes ámbitos, todas ellas con amplia experiencia en la materia sobre la que versa la ponencia, es decir, sobre la situación de la silvicultura y la política forestal en el territorio de Gipuzkoa. Sus aportaciones han sido de un gran interés y de una enorme utilidad, y han cumplido ampliamente las expectativas previstas.
3. El contexto actual, marcado por una crisis climática y un cambio en el modelo económico impulsado por la Unión Europea, busca desacoplar el crecimiento económico de los combustibles fósiles y promover el uso eficiente y sostenible de los recursos naturales. Esta transición verde inteligente ha motivado decisiones políticas a distintos niveles —regional, nacional e internacional—, donde los bosques desempeñan un papel fundamental, afectando directa o indirectamente al sector forestal.
4. Asimismo, la Unión Europea se ha marcado el objetivo de recuperar el 20% de los hábitats marítimo-terrestres para 2030 y todos los hábitats que tienen tal necesidad para 2050. Los Estados miembros recuperarán el 30% de los hábitats deteriorados para 2030, el 60% para 2040 y el 90% para 2050.
5. Ello trae consigo una diversidad de valores y exigencias en relación con los bosques y con el uso de la madera, que en ocasiones genera expectativas contradictorias, a menudo como consecuencia de una comprensión limitada de la complejidad, de la realidad y de la diversidad de los bosques y de la silvicultura, así como de los largos plazos del sector forestal.
6. Tras el análisis de toda la información y de las opiniones trasladadas por los ponentes en las distintas comparecencias, esta ponencia busca sentar las bases de la política forestal del futuro del territorio de Gipuzkoa.

2. PUNTO DE PARTIDA: MATRIZ DAFO.


7. Edozein sektore aztertzeke eta etorkizunean zer proiektzio izango duen ikusteko, funtsezkoa da lehenik eta behin datu ofizialen berri izatea. Gipuzkoako basoen kasuan, Euskadiko baso inbentarioko datuetara jo da. 2023koak dira inbentario horretako daturik berrienak, eta errealitate fisikoaren irudi zehatza ematen dute.
 8. Europako baso eskualde guztietatik, Euskadin bakarrik jasotzen dira basoetako datuak urtez urte, eta urtez urte kalkulatzen da aprobetxatutakoaren, landatu denaren eta, oro har, baso egoeraren arteko aldea.
 9. 2022aren amaieran (oraindik ez dago 2023rako daturik), basoek estaltzen zuten Gipuzkoako azaleraren % 61,6; hau da, 121.925 hektarea. Kopuru hori Suedian, Finlandian edo Letonian erregistratutakoaren pareko da.
 10. Espezieen ehunekoaren ikuspegitik, % 49,88 koniferoak dira eta % 50,11 hostozabalak, eta Gipuzkoan inbentariatutako 34 espezieetatik hiruk bakarrik gainditzen dute Gipuzkoako baso azaleraren % 10:
 - a. Pagoak: % 15,03 (18.375 ha).
 - b. Baso misto atlantikoak: % 16,26 (19.707 ha).
 - c. Espezie bakar batek gainditzen du % 25 (hau da, intsinis pinuak) eta % 28,68an dago (33.734 ha).
7. Para analizar cualquier sector y su proyección futura, es esencial conocer primero los datos oficiales. En el caso de los bosques de Gipuzkoa, se ha recurrido al inventario forestal de Euskadi, cuyos datos más recientes corresponden a 2023, proporcionando una imagen precisa de su realidad física.
 8. Euskadi es la única región forestal de Europa donde se recaban los datos forestales año tras año, y de año en año se calcula la diferencia entre lo que se ha aprovechado, lo que se ha plantado y la situación forestal en general.
 9. A finales de 2022 (sin datos aún disponibles para 2023), el 61,6% de la superficie de Gipuzkoa estaba cubierta por bosques, lo que representa 121.925 hectáreas, una cifra comparable a la de países como Suecia, Finlandia o Letonia.
 10. Desde el punto de vista del porcentaje de las distintas especies, el 49,88% son coníferas y el 50,11% son frondosas, y de las 34 especies inventariadas que existen en Gipuzkoa, solamente 3 superan el 10% de la superficie forestal de Gipuzkoa:
 - a. El haya: 15,03% (18.375 ha)
 - b. Bosque mixto atlántico: 16,26% (19.707 ha).
 - c. Solo una especie supera el 25%, que es el pino radiata y que está en el 28,68% (33.734 ha).



2022

- | | | |
|----------------------|-----------------------|---------------------|
| Insignis pinua | ■ Pagoa | ■ Haritza |
| Larizioa | ■ Beste larizioak | ■ Douglas izeia |
| Haritza amerikarra | ■ Kriptomeria | ■ Artea |
| ■ Itsas pinua | ■ Hostozabalak | ■ Sekuoia |
| ■ Beste hostozabalak | ■ Nitens eukalptoia | ■ Ibai ertzekoak |
| ■ Lausoniana | ■ Beste coniferak | ■ Sasiakazia |
| ■ Gaztainondoa | ■ Globulus eukalptoia | ■ Alnus glutinosa |
| ■ Urkia | ■ Petraea haritza | ■ Pirenaika haritza |

11. .



12.

13. LOB Departamentuko diputatuaren aurkezpena Batzar Nagusietan, 2024-XX-Xx

14. Euskadiko baso inbentarioaren datu ofizialak azaldu ondoren, sektore baten etorkizuna planteatzerakoan ezinbestekoa da diagnostiko komun batetik abiatzea, bai eta indarguneen, ahulguneen, mehatxuen eta aukeren matrizea kontuan hartzea ere.
15. Kasu honetan, MATRIZE hori egiteko aintzakotzat hartu da ponentzia honetako agerraldietan bildutako informazio guztia.

2.1. INDARGUNEA.

16. Zuhaitz azalera handia: Basogintza sektorea funtsezkoa da lurraldea mantentzeko, bai alderdi fisiko eta kulturaletik, bai ingurumenaren aldetik. Gipuzkoak zuhaitzez estalita dauka lurraldearen % 61,6, eta, horrenbestez, Suedia, Finlandia edo Letoniaren proportzio bereko baso eremu bat da.
17. Aniztasuna: Gipuzkoako basoek biodibertsitate aberatsa ageri dute, eta bere ekosisteman mikrohabitata ez ezik badaude interkonektatutako mikrohabitata ere. Paisaia horretan sorturiko mosaikoaren bereizgarria da elkarrekin bizi direla hainbat hostozabal eta konifero espezie, eta banaketa orekatua eta heterogeneoa osatzen dutela.
18. Erresilientzia: Konektagarritasunari eta aniztasunari dagokienez —eta horiek funtsezko faktoreak dira erresilientziarako—, Gipuzkoa egoera onean dago.
19. Landazabaleko paisaia: Gipuzkoako paisaia, baserritarrek moldekatua, basoz, zelaiz eta landazabalez osatutako mosaiko bat da. Baso lurzati gehienak oso txikiak eta zatikatuak dira, eta flora eta fauna aberatseko biodibertsitatea dute, ingurumen eta paisaia balio handikoa.
20. Bermeak eskaintzen dituen araudia: Gipuzkoak dauka Europako araudi bermatzaileenetako bat baso kudeaketari dagokionez.
21. Funtzio aniztasuna: Gipuzkoan funtzio anitzeko basoak daude, eta lagundu egiten dute klima aldaketaren ondorioak arintzen.
22. Gipuzkoako mendiek hornitzen duten egurra materia biologiko berriztagarria da, eta ez da lehiatzen elikagai ekoizpenarekin.
23. Zerbitzu ekosistemikoak: Egurraz gainera, Gipuzkoako mendiek beste produktu eta zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituzte, gizarteari onura ugari eskaintzen dizkietenak.
24. Baso industria: Euskadik eta Gipuzkoak 1. eta 2. eraldaketako basogintza industria dute, oro har, sektorearen oinarri garrantzitsua diren

14. Una vez expuestos los datos oficiales del inventario forestal de Euskadi, a la hora de plantearse el futuro de un sector es imprescindible partir de un diagnóstico común y de una matriz de fortalezas, debilidades, amenazas y oportunidades.
15. En este caso, esta MATRIZ se ha hecho a partir de toda la información recopilada en las distintas intervenciones de esta ponencia.

2.1. PUNTOS FUERTES.

16. Amplia superficie arbolada: El sector forestal es crucial para el mantenimiento físico, medioambiental y cultural del territorio. Gipuzkoa, con un 61,6% de superficie arbolada, se posiciona como una región forestal comparable a países como Suecia, Finlandia o Letonia.
17. Diversidad: Los bosques de Gipuzkoa muestran una biodiversidad rica, con ecosistemas que abarcan desde microhábitats hasta macrohábitats interconectados. Este paisaje se caracteriza por un mosaico en el que coexisten diversas especies de frondosas y coníferas, formando una distribución equilibrada y heterogénea.
18. Resiliencia: En términos de conectividad y diversidad, factores clave para la resiliencia, Gipuzkoa presenta una situación favorable.
19. Paisaje de campiña: El paisaje de Gipuzkoa, modelado por los baserritarras, se compone de un mosaico de bosques, praderas y campiñas. Las parcelas forestales, en su mayoría muy pequeñas y fragmentadas, albergan una biodiversidad rica en flora y fauna, con un alto valor medioambiental y paisajístico.
20. Normativa garantista: Gipuzkoa, en lo que a gestión forestal se refiere, tiene una de las normativas más garantistas de Europa.
21. Multifuncionalidad: Gipuzkoa cuenta con bosques multifuncionales que ayudan a mitigar los efectos del cambio climático.
22. La madera que proveen los montes de Gipuzkoa es una materia biológica renovable que no compete con la producción de alimentos.
23. Servicios ecosistémicos: Además de la madera, los montes guipuzcoanos proveen de otros productos y servicios que proporcionan numerosos beneficios a la sociedad.
24. Industria forestal: Euskadi y Gipuzkoa cuentan con una industria forestal de 1ª y 2ª transformación basada, en general, en pequeñas y medianas empresas que suponen

enpresa txiki eta ertainetan oinarrituta.

25. Barne produktu gordina: Basogintza sektorea Euskal Autonomia Erkidegoko barne produktu gordinaren % 1,5 da, eta zuzeneko nahiz zeharkako enplegu ugari sortzen du (19.000 lanpostu inguru), bai eta jarduera ekonomiko mardul bat ere. Gipuzkoan ekoizten den batez besteko balio gordina 20 milioikoa da, eta BPGaren % 0,15 izan zen 2022an. Lanpostuei dagokienez, Gipuzkoan basogintzan lan egiten duten pertsonak 3.000 inguru dira.
26. Ziurtatutako basoak: Gipuzkoan, 28.000 ha baino gehiago daude PEFC zigiluarekin ziurtatuta. PEFC ziurtagiria dutenez gain FSC zigiluarekin ziurtatutakoen datuak ematea.
27. Klimatologia: Gipuzkoako klimatologia oso egokia da basoak berez hazteko.
28. Baso kudeaketa jasagarria: Gipuzkoako Foru Aldundiak baso kudeaketa jasagarriaren aldeko apustu sendoa egin du (laguntza planak, BSTK Fundazioa, sektorearteko lankidetzak hitzarmenak eta abar).
29. Asoziazionismoa: Bada elkarteak osatzeko oinarri bat baso ekoizleen edo jabeen artean, helburu berriei ekiteko prest.
30. Inbertsioa: Gipuzkoako basogintza sektorearen parte handi bat prest dago bertako basoen kudeaketan inbertitzeko.
31. Lurraldean errotutako jabetza: Baso jabe gehienak jabe txikiak dira, eta familia transmisio bidez jaso dituzte lurak.

2.2. AHULGUNEAK.

32. Zatiketa eta atomizazioa: Gipuzkoako baso azaleraren % 78,5 esku pribatuetan dago, eta oso propietate zatikatuak eta atomizatuak ditu. Mosaiko horrek lursail txiki ugari biltzen ditu, forma askotakoak eta jabe ezberdinak dituztenak. Lursail horien % 80k 10 hektarea baino gutxiago dituzte, eta % 50 baino gehiago 5 hektareaz azpikoak dira. Horrek zaildu egiten du kudeaketa, eta errentagarritasun ekonomikoa, berriz, murriztu.
33. Orografia: Gipuzkoako orografia malkartsuak zaildu egiten du baso kudeaketa, eta handitu egiten ditu kudeaketa horrekin loturiko kostuak.
34. Epe luzeak: Basogintza sektoreko inbertsioek aldi luzeak eskatzen dituzte, 35 urtetik 100 urtera bitartekoak, eta, beraz, oso handia da hondamendi naturalek edo klima aldaketak

una base importante del sector.

25. Producto interior bruto: El sector forestal supone el 1,5 % del producto interior bruto de la Comunidad Autónoma vasca, que genera un número importante de empleos tanto directos como indirectos (en torno a 19.000 empleos), así como una significativa actividad económica. El valor medio bruto producido en Gipuzkoa es de 20 millones de euros y representó el 0,15% del PIB en 2022. En cuanto a los puestos de trabajo, el número de personas que trabajan en el sector forestal en Gipuzkoa ronda las 3.000.
26. Bosques certificados: Más de 28.000 ha en Gipuzkoa están certificadas bajo el sello de PEFC. Además de los certificados con certificado PEFC, aportar también datos de los certificados con sello FSC.
27. Climatología: La climatología de Gipuzkoa es muy favorable para el crecimiento espontáneo de los bosques.
28. Gestión forestal sostenible: La Diputación Foral de Gipuzkoa apuesta firmemente por la gestión forestal sostenible (planes de ayudas, Fundación BSTK, convenios de colaboración sectoriales...)
29. Asociacionismo: Existe una base asociativa a nivel de los productores o propietarios forestales dispuesta a acometer nuevos objetivos.
30. Inversión: Gipuzkoa cuenta con una gran parte del sector forestal que está dispuesta a invertir en la gestión de sus bosques.
31. Propiedad arraigada en el territorio: La inmensa mayoría de los propietarios forestales son pequeños propietarios que han recibido sus terrenos por transmisión familiar.

2.2. PUNTOS DÉBILES.

32. Fragmentación y atomización: El 78,5% de la superficie forestal de Gipuzkoa está en manos privadas, con propiedades altamente fragmentadas y atomizadas. Este mosaico incluye numerosas parcelas pequeñas, con formas variadas y de diversos propietarios. El 80% de estas parcelas tienen menos de 10 hectáreas, y más del 50% menos de 5 hectáreas, lo que complica la gestión y reduce la rentabilidad económica.
33. Orografía: La compleja orografía de Gipuzkoa dificulta la gestión forestal y aumenta los costes de gestión.
34. Largos plazos: Las inversiones en el sector forestal requieren períodos prolongados, que van de 35 a 100 ó más años, por lo que el riesgo por desastre natural o enfermedades producidas

eragindako gaixotasunek sorturiko arriskua.

35. Jabeen adina: Baso jabeen batez besteko adina handia da; % 55ek baino gehiagok 65 urtetik gora dituzte, eta % 34k, berriz, 75 urte baino gehiago.
36. Belaunaldi erreleboa: Zaila da baso jabeen belaunaldien arteko erreleboa egitea, eta gero eta gehiago dira landa inguruneke errealitate deskonektatuta dauden baso jabe berriak.
37. Kudeatu gabeko baso azalera handitzea: Azken urteotan, abandonaturiko baso azalera handitu egin da Gipuzkoan, eta, gaur egun, lurralde historikoko baso azalera osoaren % 16 izatera iritsi da (19.000 ha daude kudeatu gabe).
38. Errentagarritasun txikia: Lursailak oso sakabanatuta daudenez eta txikiak direnez, eta egurraren prezioak gorabeherak dituzenez, oso txikia da errentagarritasun ekonomikoa.
39. Gogorik eza: Etorkizunarekiko ziurgabetasuna dela eta, gogorik eza da nagusi, oro har.
40. Aitorpen sozial eta ekonomikorik eza: Baserritarrek eta baso jabeek errekonozimendu sozial eta ekonomikoa txikia sumatzen dute zura sortzen, paisaia mantentzen eta ingurumen jasagarritasuna mantentzen egindako lanagatik.
41. Profesionalizazio maila baxua: langile eta profesional falta sumatzen da sektorean.
42. Industria eta hostozabalak: Industria eta merkatua falta da hostozabal espezieentzat.

2.3. MEHATXUAK.

43. Klima aldaketa: Klima aldaketaren ondorioek areagotu egin dituzte hondamendi naturalak eta arrisku biotiko eta abiotikoak. Bada kontu bereziki kezagarria bat: ugaritzen ari dira hainbat espezieri eragiten dieten izurriteak eta gaixotasunak, eta hori arazo bihurtzen ari da Europan. Abandonu-egoera, besteak beste, Gipuzkoako basoek azken hamarkadetan jasandako hondamendi natural handienaren ondorio da: banda marroien gaixotasuna.
44. Baso kudeaketa bertan behera uzteak eragin zuzena du Gipuzkoako ekosistema naturala mantentzeko dagokionez. Bertan behera utzitako basoen tasa handiagoa izateak murriztu egiten ditu oxigeno ekoizpena eta karbono xurgatzeko gaitasuna, uraren kalitatea hondatzen du, eta zaildu egiten du mendien eskuragarritasuna eta mendiez gozatu ahal izatea. Gainera, areagotu egiten du suteen,

por el cambio climático es muy elevado.

35. Edad de los propietarios: La edad promedio de los propietarios forestales es alta; más del 55% supera los 65 años y el 34% tiene más de 75 años.
36. Relevos generacional: Dificultad para el relevo generacional en los propietarios forestales y creciente número de nuevos propietarios forestales que se encuentran en general desconectados de la realidad del medio rural.
37. Aumento de la superficie forestal no gestionada: En los últimos años la superficie forestal abandonada ha aumentado en Gipuzkoa, llegando a suponer en la actualidad un 16% del total de la superficie forestal de Gipuzkoa (19.000ha sin gestionar).
38. Baja rentabilidad: La gran dispersión de las parcelas y su pequeño tamaño, junto con las fluctuaciones del precio de la madera hacen que la rentabilidad económica sea muy baja.
39. Desánimo: Existe un desánimo generalizado por la incertidumbre hacia el futuro.
40. Falta de reconocimiento social y económico: Se percibe una falta de reconocimiento social y económico del baserritarra y propietario forestal por el trabajo realizado en la generación de madera, el mantenimiento del paisaje y de la sostenibilidad ambiental.
41. Bajo nivel de profesionalización: falta de trabajadores y profesionales en el sector.
42. Industria y frondosas: Falta de industria y de mercado para las especies de frondosas.

2.3. AMENAZAS.

43. Cambio climático: Las consecuencias del cambio climático han provocado un aumento de las catástrofes naturales y de los riesgos bióticos y abióticos. En particular, preocupa el incremento de plagas y enfermedades que afectan a diversas especies, lo cual se está convirtiendo en un problema de alcance europeo. La situación de abandono entre otros motivos es debido a la mayor catástrofe natural sufrida por el bosque guipuzcoano en las últimas décadas, la enfermedad de las bandas.
44. El abandono de la gestión forestal tienen un impacto directo en el mantenimiento de los ecosistemas naturales de Gipuzkoa. Una mayor tasa de abandono reduce la producción de oxígeno y la capacidad de absorción de carbono, deteriora la calidad del agua y dificulta el acceso y disfrute del monte. Además, aumenta el riesgo de incendios, plagas y enfermedades.

izurriteen eta gaixotasunen arriskua.

45. Ziurgabetasuna: Gaur egun, zalantza handia dago zer espezie landatu behar ote diren, klima aldaketa eta basogintza sektorearen inbertsio epe luzeak kontuan hartuta.
46. Sektorearen irudia: Gipuzkoako gizartea kaletartu egin da, eta aldendu egin da baserri eta baso kulturatik. Deskonexio horrek basoei eta baso jardueri buruzko ezjakintasuna eragin du, eta areagotu egin du sektorearen gaineko pertzepzio negatiboa.
47. Hipererregulazioa: Hipererregulazioa eta politiken arteko koherentzia falta ageri dira, eta horren ondorioz, mugatu egiten da askotan baso kudeaketa, garestitu egiten dira ekoizpen kostuak eta karga burokratiko handiagoa izaten da.
48. Prezioen gorabeherak: Egurraren merkatua ezegonkorra da, eta prezio gorabehera handiak ditu.
45. Incertidumbre: Actualmente, hay una considerable incertidumbre sobre qué especies plantar, considerando el cambio climático y los largos plazos de inversión en el sector forestal.
46. Imagen del sector: La sociedad guipuzcoana se ha urbanizado, distanciándose de la cultura rural y forestal. Esta desconexión ha generado un desconocimiento sobre los bosques y las actividades forestales, contribuyendo a una percepción negativa del sector.
47. Hiper-regulación: Existe una hiper-regulación y falta de coherencia entre las distintas políticas que en muchas ocasiones tienen como consecuencia limitaciones a la gestión forestal, un incremento de los costes productivos y una mayor carga burocrática.
48. Fluctuación de precios: El mercado de la madera es un mercado inestable con gran fluctuación de precios.

2.4. AUKERAK.

49. Bioekonomia: Karbono gutxiko ekonomiaranzko trantsizioak nabarmendu egiten du basoek eta egurrak baliabide biologiko berriztagarri gisa duten garrantzi erabakigarria. Baliabide horrek ordeztu egin ditzake erregai fosiletan oinarritutako materialak, eta horrek garapen potentzial handia du merkatuan.
50. Teknologia berriak: Egungo teknologiei esker, egurretik eratorritako produktuak balio erantsi handiagoarekin gara daitezke.
51. Zerbitzu ekosistemikoek potentzial handia dute merkatuan, bereziki ingurumen zerbitzuengatik ordainketa sistemak garatzen, hala nola karbono kredituen merkatuetan eta biodibertsitatean.
52. Sektorearen digitalizazioak garapen potentzialtasun handia du, eta horrek merkatuko kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzea dakar.
53. Baso produktu jasagarrien eskaria etengabe ari da handitzen, eta horrek etengabeko hedapen merkatua sortu du egurrerako, papererako, biomasarako eta basoetatik eratorritako beste produktu batzuetarako; horrek, halaber, epe luzerako inbertsio aukerak eskaintzen ditu, eta sektorearekin lotutako arloetan enplegua sortzea bultzatzen du (basogintza, zurgintza, hornidura katearen kudeaketa eta biodibertsitatearen kontserbazioa).
54. Merkatu nitxo berriak: Egurrarekin eraikitzeko merkatua garapen ahalmen handiko nitxo bat da Gipuzkoan, eta erosketa publiko berdea da

2.4. OPORTUNIDADES.

49. Bioeconomía: La transición hacia una economía baja en carbono resalta el papel crucial de los bosques y la madera como recurso biológico renovable. Este recurso puede sustituir materiales basados en combustibles fósiles, lo que presenta un gran potencial de desarrollo en el mercado
50. Nuevas tecnologías: Las tecnologías actuales permiten desarrollar productos derivados de la madera con un mayor valor añadido.
51. Los servicios ecosistémicos tienen un gran potencial en el mercado, especialmente en el desarrollo de sistemas de pago por servicios ambientales, como los mercados de créditos de carbono y biodiversidad.
52. Existe una gran capacidad de desarrollo de la digitalización del sector que implica una mejora en la gestión y en la competitividad en el mercado.
53. La demanda de productos forestales sostenibles se encuentra en constante aumento, lo que ha creado un mercado de constante expansión para madera, papel, biomasa y otros productos derivados de los bosques; ello ofrece asimismo oportunidades de inversión a largo plazo e impulsa la creación de empleo en áreas relacionadas con el sector (silvicultura, industria maderera, gestión de la cadena de suministro y conservación de la biodiversidad).
54. Nuevos nichos de mercado: El mercado de la construcción en madera constituye un nicho con gran potencial de desarrollo en Gipuzkoa, con la

merkatu hori garatzeko trakzio indarra.

55. Aliantzak: Bada aukera baterako kudeaketa formulatan sakontzeko eta lan egiteko.
56. Onura sozialak: Basogintza sektore oparo batek eginkizun garrantzitsua izan dezake beste politika publiko batzuk hobeto garatzeko, hala nola erronka demografikoa eta lurralde berrerekaren aurkako borroka, klima aldaketa arintzea, erregai fosilekiko mendekotasun energetikoa murriztea edo Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzea, besteak beste.
57. Herrialde ituna: basogintzari buruzko ponentzia hau egiteak adierazten du Gipuzkoako Batzar Nagusiek badutela borondatea lurralde horretako basoei eta basogintzari buruzko herrialde itun bat lortzeko.

3. ETORKIZUNEN GAKOAK.

58. Basoak ekosistema erabakigarria dira Gipuzkoan, eta oinarritzko onura ekologikoak, ekonomikoak eta sozialak eskaintzen dituzte. Funtsezko eginkizuna dute biodibertsitateari eusteko, uraren eta klimaren zikloa arautzeko, eta lehengai jasangarriak hornitzeko.
59. Gipuzkoako gizarteak espero du Gipuzkoako basoak modu jasangarrian kudeatuko direla etorkizunari begira, hiru zutabeak kontuan hartuta: ingurumena, ekonomia eta gizartea.
60. Ildo horretan, Gipuzkoako gizarteak basoaren funtzioak optimizatzea espero du:
 - a. Ingurumena babestea eta klima aldaketaren aurka borrokatzea.
 - b. Bioekonomia bultzatzea.
 - c. Gipuzkoako herritarren erabateko ongizatea bermatzea.
61. Hiru funtzio horiek Gipuzkoan modu orekatuan gauzatzeko, ekimen haiek proposatzen dira:

3.1. BASOEN INGURUMENA BABESTEKO ETA KLIMA ALDAKETAREN AURKA BORROKATZEKO.

3.1.1. Baso plangintza, lurraldea antolatzeko tresna gisa.

62. Hainbat ponentzietan adierazienez, ez dago baso plangintza egokirik lurralde antolamenduaren esparruan eta ez dago

compra pública verde como fuerza tractora para el desarrollo de dicho mercado.

55. Alianzas: Existe posibilidad de profundizar y trabajar en fórmulas de gestión conjunta.
56. Beneficios sociales: Un sector forestal próspero puede desempeñar un papel importante en el mejor desarrollo de otras políticas públicas, como la lucha contra el reto demográfico y el reequilibrio territorial, la mitigación del cambio climático, la reducción de la dependencia energética de los combustibles fósiles o el cumplimiento de los Objetivos de Desarrollo Sostenible, entre otras.
57. Pacto de país: la celebración de la presente ponencia sobre silvicultura indica la voluntad de las Juntas Generales de Gipuzkoa de llegar a un pacto de país respecto de los bosques y la silvicultura en dicho territorio.

3. CLAVES DE FUTURO.

58. Los bosques son un ecosistema clave en Gipuzkoa, que proporcionan beneficios ecológicos, económicos y sociales esenciales. Desempeñan un papel fundamental en el mantenimiento de la biodiversidad, la regulación del ciclo del agua y del clima, y el suministro de materias primas sostenibles.
59. La sociedad guipuzcoana espera que de cara al futuro los bosques de Gipuzkoa que se gestionen de forma sostenible, teniendo en cuenta los tres pilares de la misma: medioambiental, económica y social.
60. En este sentido, la sociedad guipuzcoana espera optimizar las distintas funciones que tiene el bosque:
 - a. Proteger el medioambiente y luchar contra el cambio climático.
 - b. Impulsar la bioeconomía.
 - c. Garantizar el bienestar integral de la ciudadanía guipuzcoana.
61. Para llevar a cabo estas tres funciones de una forma equilibrada en Gipuzkoa, se proponen las siguientes iniciativas:

3.1. EL BOSQUE PARA PROTEGER EL MEDIOAMBIENTE Y LUCHAR CONTRA EL CAMBIO CLIMÁTICO.

3.1.1. Planificación forestal como herramienta de ordenación del territorio.

62. Varias ponencias han señalado la carencia de una planificación forestal adecuada en el marco de la ordenación territorial, así como la falta de

berariazko tresnarik. Argi dago beharrezkoa dela baso plangintza lurralde antolamenduan txertatzea, eta, hala, segurtasun juridikoko esparru ziur bat eskaintzea. Integrazio horrek izan behar du Gipuzkoako etorkizuneko edozein baso politikaren oinarria, eta araudi egonkor bat bermatu behar du epe luzera.

63. Krisi klimatikoaren eta Gipuzkoako eta Euskadiko baso errealitatearen aldaketen egungo testuinguruan, funtsezkoa da Euskadiko 1994-2030 aldirako Baso Plangintza eguneratzea eta inguruabar berrietara egokitzea. Etorkizuneko planak baso lurralde orekatua bermatu behar du espezieei dagokionez, egungoaren antzekoa; era berean, lankidetzaren publiko-privatua sustatu behar du, bai eta baso kudeaketa jasangarria bultzatu ere, Baso Kudeaketa Jasangarriko Plan Teknikoek babestuta. Gaur egun, badira informazio sistema oso aurreratuak, eta administrazioak erabil ditzake basoen erabileren arteko oreka bilatzen duten plangintza sinplifikatuak egiteko eta garatzeko.
64. Ponentzia batzuetan aipatutako mendi babeslearen figurari dagokionez, bere garaian Euskadiko 1994-2030 aldirako Baso Plangintzan eta hiru lurralde historikoetako Mendien Foru Arauetan aurreikusi zen figura bat da, erabaki oso zehatzak hartu behar diren gai puntualetarako. Gaur egungo araudia kontuan hartuta, baso teknikarien iritziz, ez dirudi figura horrek babes gehigarri eman dezakeenik mendi publiko bat edo onura publikoko mendi bat kudeatzeari dagokionez, ez eta administrazioak ikuskatzen duen mendi pribatu baten kudeaketan ere.

3.1.1.1. Baso misto atlantikoa.

65. Kudeatu gabeko baso misto atlantikoak eta Gipuzkoan bizi duen hedapenak kezka nabarmenak sortzen dituzte: (i) biomasaren kontrolik gabeko metaketagatik, sute arriskua areagotu dezakeen heinean; (ii) ur hornidura txikiagoagatik, landareek ur gehiago kontsumitzen baitute basoak lodiegi eta itxiegi daudenean; eta (iii) lehorteen arriskua handitzeagatik, hazkunde desordenatu horrekin eta basoa ez kudeatzearekin loturik.
66. Beraz, baso misto atlantikoa kudeatzeko beharra planteatzen da, haren hedapena modulatu eta antolatzeko. Horri esker, zerbitzu ekosistemikoak indartu ahal izango dira, zeinek berariazko mantentze lanak behar baitituzte.

instrumentos específicos. Es evidente la necesidad de integrar la planificación forestal dentro de la ordenación territorial, proporcionando un marco de seguridad jurídica y certidumbre. Esta integración debe ser la base de cualquier política forestal futura en Gipuzkoa y debe garantizar una normativa estable a largo plazo.

63. En el contexto actual de crisis climática y cambios en la realidad forestal de Gipuzkoa y Euskadi, es crucial actualizar y adaptar el Plan Forestal Vasco 1994-2030 a las nuevas circunstancias. El Plan del futuro debe asegurar un territorio forestal equilibrado en términos de especies similar al actual, fomentar la colaboración público-privada y promover una gestión forestal sostenible respaldada por los Planes Técnicos de Gestión Forestal Sostenible (PTGFS). Hoy en día se cuenta con sistemas de información muy avanzados que pueden ser utilizados por la Administración para la elaboración y desarrollo de planificaciones simplificadas que busquen el equilibrio entre los distintos usos de los bosques.
64. Respecto a la figura del monte protector, mencionada en algunas ponencias, se trata de una figura que se contempló en su día en el Plan Forestal Vasco 1994-2030 así como en las Normas Forales de Montes de los tres territorios históricos para cuestiones puntuales en las que deben tomarse decisiones muy concretas. Hoy en día, a juicio de los técnicos forestales, con la normativa existente no parece que esta figura pueda aportar una protección adicional en la gestión que se hace en la actualidad de un monte público o monte de utilidad pública o de un monte privado que está supervisado por la Administración.

3.1.1.1. Bosque mixto atlántico.

65. El bosque mixto atlántico no gestionado y su expansión en el territorio gipuzkoano genera preocupaciones significativas: (i) por la acumulación incontrolada de biomasa que puede suponer un incremento en el riesgo de incendios, (ii) por la menor provisión de agua cuando los bosques están excesivamente densos y espesos por el mayor consumo de sus plantas, y (iii) por el aumento de la susceptibilidad a sequías que tiene que ver con ese crecimiento desordenado y con la falta de gestión del bosque.
66. Por tanto, se plantea la necesidad de gestionar el bosque mixto atlántico para modular y ordenar su expansión. Esto permitirá potenciar los servicios ecosistémicos, que requieren un mantenimiento específico.

67. Basoaren izaera mistoa mantentzera bideratutako kudeaketa horrek, orobat, ahalbidetuko luke biomasa balio erantsi handiagoko produktuak sortzeko aprobetxatzea ere.
68. Horretarako, basoko hainbat ibilbide ezarri beharko lirateke, baso mota horren jasangarritasuna hobetzeko —ingurumen jasangarritasuna zein ekonomikoa—.
69. Kudeatu gabeko basoa heda ez dadin, Gipuzkoako Foru Aldundiak BSTK Fundazioa sortu du, Gipuzkoako basoen kudeaketa jasangarria sustatzeko, kontuan hartuta gaur egun Gipuzkoako baso azaleraren % 16 kudeatu gabe dagoela (19.000 ha).
70. Lurraldeko basoak zaintzea eta kudeatzea helburu duen ekimen horrek interes handia piztu du Gipuzkoako baso jabeen artean.
71. Azken hilabeteetan egin diren informazio bileretan, 1.600 lagunek baino gehiagok parte hartu dute, eta une honetan 650 familia inguruk agertu dute interesa BSTK Fundazioak eskaintzen dituen zerbitzuekin. Familia horien guztien artean, 7.000 hektarea inguruko baso azalera hartuko litzateke.
72. Beraz, egiaztatu da Gipuzkoan baso jabe askok laguntza behar dutela basoak kudeatzeko, eta, beraz, BSTK Fundazioa beharrezko tresna dela premia horri aurre egiteko.
73. BSTK Fundazioaren helburua da lurralde ikuspegia kontuan hartuta egitea kudeaketa, baso bakoitzak Gipuzkoa osoan duen rola definituz eta dibertsifikazioa bilatuz (hau da, mosaikotasuna). Horretarako, espezie eta baso ugari kudeatzen ditu askotariko egoeretan, eta espezie koniferoen eta hostozabalen artean gaur egun dagoen orekari eusten saiatzen da, kudeaketa eredu desberdinak aplikatuz —erregularrak zein irregularrak—, arriskuak murriztea helburu gisa hartuta.
74. Era berean, BSTK Fundazioak Gipuzkoako lurraldea deskarbonizatzeke helburuak lortzen laguntzea du helburu, eta maximizatu egin nahi du kudeatzen dituen basoek karbono emisioak bahitzeko duten gaitasuna.
75. BSTK Fundazioaren beste helburu nagusietako bat da Gipuzkoako gizartea eta sektore ekonomikoak inplikatzea eta sentsibilizatzea baso ondarearen kudeaketa jasangarria
67. Esta gestión, orientada a mantener el carácter mixto del bosque, también permitiría aprovechar la biomasa para crear productos de mayor valor añadido.
68. A tal fin deberían establecerse distintos itinerarios silvícolas a fin de mejorar la sostenibilidad tanto medioambiental como económica de este tipo de bosque.
69. En aras a evitar la expansión del bosque no gestionado, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha creado la Fundación BSTK que promueve la gestión forestal sostenible de los bosques de Gipuzkoa, teniendo en cuenta que en la actualidad un 16% de la superficie forestal de Gipuzkoa se encuentra sin gestionar (19.000 ha).
70. Esta iniciativa que se centra en el cuidado y la gestión de los bosques del territorio ha suscitado un gran interés entre los y las propietarios forestales guipuzcoanos y guipuzcoanas.
71. En las reuniones informativas que se han llevado a cabo en los últimos meses han participado más de 1.600 personas y en estos momentos unas 650 familias han mostrado interés en la oferta de servicios que realiza la Fundación BSTK. Entre todas estas familias sumarían alrededor de 7.000 hectáreas de superficie forestal.
72. Por lo tanto, se constata que en Gipuzkoa un número importante de propietarios forestales tiene esa necesidad de ayuda para gestionar sus bosques, de modo que la Fundación BSTK resulta ser una herramienta necesaria para afrontar dicha necesidad.
73. La Fundación BSTK tiene como objetivo llevar a cabo una gestión desde una perspectiva de territorio, mediante la definición del rol que cada uno de los bosques tiene en toda Gipuzkoa y buscando asimismo la diversificación (mosaicidad), mediante la gestión de numerosas especies y bosques en distintas situaciones, intentando mantener el equilibrio existente en la actualidad entre las especies coníferas y frondosas, y aplicando distintos modelos de gestión, tanto regular como irregular, y con un objetivo de disminución de riesgos.
74. Asimismo, la Fundación BSTK tiene como objetivo ayudar a lograr los objetivos de descarbonización del territorio de Gipuzkoa, maximizando el secuestro de las emisiones de carbono en los bosques gestionados por la misma.
75. Otro de los grandes objetivos de la Fundación BSTK es el de involucrar y sensibilizar a la sociedad y a los sectores económicos de Gipuzkoa en la necesidad de asegurar una

ziurtatzeko eta Gipuzkoako basoek eskaintzen duten potentziala aprobetxatzeko, eta, hala, herritarren ongizate fisiko eta emozionala landu ahal izatea naturarekiko kontaktuari esker.

76. Ildo horretan, BSTK Fundazioak hainbat sozializazio ekintza diseinatu ditu, Gipuzkoako gizartea aktiboki inplikatzeko gure basoen baterako babesean eta gipuzkoarrak ingurune natural horrekin konektatzeko.

3.1.1.2. Jabetza pribatuaren estatutua.

77. Gipuzkoan, baso azaleraren % 78,5 esku pribatuetan dago (11.000 jabe inguru), eta % 50ek baino gehiagok 5 ha baino gutxiago ditu. Jabetza oso zatitua eta atomizatua da, eta horrek eragin zuzena du sinergiak sortzeari eta jardueraren eta landa ingurunearen errentagarritasun ekonomikoari begira.
78. Adina ere arazo estrukturala da sektorean; izan ere, jabeen % 55ek baino gehiagok 65 urte baino gehiago ditu, eta % 34, berriz, 75 urtetik gorakoa da.
79. Testuinguru horretan, landa luraren abandonua eta zahartze demografikoaren ondorioak minimizatze aldera, beharrezkoa da jabetza pribatua babesteko esparru juridiko bat bultzatzea eta onestea, landa lurraldea hobeto antolatzeko eta lurzoruaren erabilerak orekatzeko, baliabideak behar bezala aprobetxatzea ahalbidetzeko eta, aldi berean, Gipuzkoako baserri munduari beharrezko azpiegiturak emateko.

3.1.2. Baso kudeaketa jasangarria.

80. Baso kudeaketa jasangarriaren helburua da basoak eta baso lurak administratzea eta erabiltzea, betiere bermaturik mantentzen direla biodibertsitatea, produktibitatea, birsortzeko gaitasuna eta bizitasuna. Gainera, bermatu behar da eutsiko diotela beren potentzialari —bai orain, bai etorkizunean— tokiko, estatuko eta munduko funtsezko funtzio ekologiko, ekonomiko eta sozialak asetzeko, beste ekosistema batzuei kalterik eragin gabe. Eta helburu horrekin, Foru Organoak mendien, aprobetxamenduen eta baso-zerbitzuen arloan duen eskumen eskusiboa exekutatu du.
81. Baso kudeaketa jasangarria funtsezkoa da funtzio anitzeko basoak bermatzeko, eta baso mota guztiei aplikatu behar zaie. Kontuan izan behar ditu basoen funtzioak, eta jasangarritasunaren hiru zutabeak orekatu:

gestión sostenible del patrimonio forestal y de aprovechar el potencial que ofrecen los bosques de Gipuzkoa para poder trabajar el bienestar físico y emocional de la ciudadanía a través del contacto con la naturaleza.

76. En este sentido, la Fundación BSTK ha diseñado una serie de acciones de socialización para involucrar activamente a la sociedad guipuzcoana en la protección conjunta de nuestros bosques y conectar a sus ciudadanos con este entorno natural.

3.1.1.2. Estatuto de la propiedad privada.

77. En Gipuzkoa un 78,5% de la superficie forestal está en manos privadas, unos 11.000 propietarios, y más del 50 % posee menos de 5 has. Se trata de una propiedad muy fragmentada y atomizada, lo que tiene un efecto directo en la generación de sinergias y en la rentabilidad económica de la actividad y del medio rural.
78. También la edad es un problema estructural del sector ya que es un sector donde más del 55% de la propiedad tiene más de 65 años y el 34% tiene más de 75 años.
79. En dicho contexto, en aras a minimizar el abandono del terreno rural y el envejecimiento demográfico, es necesario impulsar y aprobar un marco jurídico de protección a la propiedad privada, en aras a una mejor organización del territorio rural y equilibrio de los usos del suelo, que permita un adecuado aprovechamiento de los recursos, y al mismo tiempo dote de las infraestructuras necesarias al mundo rural de Gipuzkoa.

3.1.2. Gestión forestal sostenible.

80. La gestión forestal sostenible tiene como objetivo administrar y usar los bosques y tierras forestales de manera que conserven su biodiversidad, productividad, capacidad de regeneración y vitalidad. Además, debe garantizar que mantengan su potencial para satisfacer, tanto ahora como en el futuro, funciones ecológicas, económicas y sociales esenciales a nivel local, nacional y global, sin causar daño a otros ecosistemas. Y con este objetivo, se ejecutará por parte del Órgano Foral la competencia exclusiva que ostenta en materia de montes, aprovechamientos y servicios forestales.
Eta iruditu bakarrik ez, garbi esan behar da gizartean lehentasuna duten interesak airearen kalitatea, ura, lurzoruak, estetika, osasuna eta biodibertsitatea direla, basoak ematen dituen onura publikoak horiek direlako hain zuzen ere. Irudi txar hori zuzentzen hasteko hobe da onura publikoaren kontra doazen praktikak alde batera uzten joatea eta zerbitzu publiko gehien eta hoberenak emango dituen basogintza bultzatzea.



3.3.3.1. Basogintzari prestigioa ematea

Eman beharreko prestigioari buruz, txostenean esaten da Gipuzkoako gizarteak aintzatetsi egin behar duela baserritarrek eta baso-jabeek egiten duten lana (160. paragrafoa), eta bai, ona litzateke hori, bai eta sektoreak klima-aldaketaren aurkako borrokan konpromisoa adieraztea ere.

Administrazio publikoek lagundu egin behar diote sektoreari, hain justu, gizarte guztiaren interes publikoak defendatzeko eragile ezinbestekoak direla ikusarazten eta beren jardura jasangarria, iraunkorra eta ingurumenarekiko errespetuzkoa izateko bidean pausoak ematen.

Eta atal honetan gehituko genuke basogintzako langileen baldintzak hobetu beharra ere; izan ere, basogintza-eredu intentsiboak zaildu egiten du haien jardura, eta areagotu egiten ditu jarduerak berak dituen arriskuak. Azken hiru urteetako hilkortasun-tasa da horren erakusle: bederatzi langile hil dira, eta horietako zortzi intentsiboan.

Laburbilduz, orain arte azaldutakoak atal honetarako ere balio du: Gipuzkoako basogintza-sektorea estrategikotzat jotzea nahi bada, gizartearentzat gero eta beharrezkoagoak diren zerbitzu ekosistemikoak eskaintzera ere bideratu beharko da, eta ez soilik egur-ustiaketara bideratutako jardura bat indartzera. Baso-ponentzia martxan jartzerakoan izandako filosofia berreskuratu eta txosten orekatuago bat egitea ezinbestekoa izango da. Bestela, adostasun politikorik gabe, ibilbide motza eta okerra izango du egungo baso-politikak.

Proposatzailearen sinadura

Eneritz Otamendi Goñi
Euskal Herria Bildu batzarkide-taldea

Bozeramailearen oniritzia

Maddalen Iriarte Okiñena
Euskal Herria Bildu batzarkide-taldea



GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

ELKARREKIN GIPUZKOA

12-C-37-307. 2398

Miren Echeveste Lacombe andreak, Elkarrekin Gipuzkoa Biltzarkide Talde Mistoko bozeramaileak, Gipuzkoako Batzar Nagusien Erregelamenduko 54. artikulua araberak, boto partikular hau aurkeztu du Gipuzkoako lurraldeko basogintzaren eta etorkizuneko baso-politikaren egoerari buruzko Ponentziaren ondorioen txostenean..

Bozeramailearen sinadura/ Firma portavoz
Miren Echeveste Lacombe

GRUPO JUNTERO MIXTO ELKARREKIN GIPUZKOA
ELKARREKIN GIPUZKOA BATZARKIDE MISTO TALDEA





1. SARRERA.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek ponentzia bat sortu dute Gipuzkoako basoen eta basogintzaren egungo egoera ebaluatzeko. Haren egitekoen artean daude, esate baterako, basogintzak emandako zerbitzuen azterketa xehatua egitea, Gipuzkoako gizarteak klima aldaketaren eta biodibertsitate galeraren aurrean dituen itxaropenei buruz ikertzea, eta beharrezko politika eta tresnak ebaluatzea eta aldatzea —adibidez 7/2006 Foru Araua, urriaren 20koa, Gipuzkoako Mendiena—, eskaera horiei erantzungo dien etorkizuneko basogintza garatzeko.

2024ko apiriletik irailera, hainbat erakundetako ordezkarien eta arlo askotako adituen 23 agerraldi izan dira. Guztiek ere esperientzia handia dute ponentzia honek aztergai duen gaian, hau da, basogintzak eta basogintza politikak Gipuzkoako Lurralde Historikoan duten egoeran. Haien ekarpenak oso interesgarriak eta erabilgarriak izan dira, eta gogotik bete dituzte aurreikuspenak.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreak Berdeko foru diputatuak, lehenbiziko agerraldian, ponentzia aurkezteko sarrera bat egin zuen, datu garrantzitsuenak aurkeztu zituen, eta Gipuzkoako basoei eta basogintzari buruzko bere iritzia eman zuen.

Agerraldi gehienetan, arazoaren konplexutasuna basoek eta baso landaketek eskaintzen dizkiguten zerbitzu ekosistemikoen ikuspegitik baloratzearen garrantzia planteatu da edo aipatu da.

Gaur egungo testuingurua krisi klimatikoak eta Europar Batasunak bultzatutako eredu ekonomikoaren aldaketak markatuta dago, eta helburua da hazkunde ekonomikoa erregai fosiletatik bereiztea eta baliabide naturalen erabilera efizientea eta jasangarria sustatzea. Trantsizio horrek iraunkorra izan behar du gizartearen eta ingurumenaren aldetik, eta basoek gizarteari eta biodibertsitateari ematen dizkioten zerbitzu ekosistemikoak erdigunean jarri behar ditu. Basoaren ikuspegi multifuntzionala defendatzen duten eta gizartearen eta basoaren arteko harreman berri bat sustatzen duten baso politikak ezarri behar dira. Horretarako, erabaki politikoak hartu behar dira maila guztietan —eskualdeetan, estatuan eta nazioartean—, kontuan izanik basoek funtsezko eginkizuna dutela; hala, zuzenean edo zeharka eragiten zaio basogintza sektoreari.

Birmoldaketa horrek hainbat balio eta eskakizun dakartza berekin, bai basoei dagokienez, bai egurraren zein beste natura baliabideen erabilerari dagokionez, eta itxaropen berriak sortzen dira; besteak beste, elikagaiak ekoiztea eta gizartearentzako beste onura batzuk, basoen eta basogintzaren aniztasunaren ikuspegi zabalago eta ausartago baten ondorioz.

Informazio guztia eta txostengileek agerraldietan emandako iritziak aztertu ondoren, ponentzia honen helburua Gipuzkoako lurraldearen etorkizuneko baso politikaren oinarriak ezartzea da, zeina dagozkion arau erreformen bidez gauzatu beharko den, lehenengo erreforma Gipuzkoako Mendiei buruzko 7/2006 Foru Arauarena izanda.

2. ABIAPUNTUA: AMIA MATRIZEA.

Edozein sektore aztertzeke eta etorkizunean zer proiektio izango duen ikusteko, funtsezkoa da lehenik eta behin datu ofizialen berri izatea. Gipuzkoako basoen kasuan, Euskadiko baso inbentarioko datuetara jo da. 2022koak dira inbentario horretako daturik berrienak, eta errealitate fisikoaren irudi zehatza ematen dute. Gainera, basogintza, basoa edo baso landaketa bezalako kontzeptuen inguruko interes, funtzio eta zerbitzu ekosistemikoen konplexutasuna argitze aldera, behar bezala definitu behar dira. Landare estalki guztiei ezin zaie baso deitu.

-Basogintza baso masei aplikatzen zaizkien baso teknikak dira, masa horietatik gizarteak eskatutako ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena lortzeko. Teknika horiek intentsiboak izan daitezke, monokultibo bidez, edo estentsiboak, manei selektiboagoaren bidez.

-Berez sortzen eta hazten den baso masa da basoa. Gure lurraldean, landare estalki mota horri baso misto atlantikoa esaten zaio.

Kontzeptu horiek ez dira itxiak, eta bateratu ere egin daitezke: adibidez, monolaborantza bidezko baso landaketa bat aprobetxatzen ez denean, denboraren poderioz baso misto atlantiko bihurtzen eta naturalizatzen joaten da.





2022aren amaieran (oraindik ez dago 2023rako daturik), zuhaitzek estaltzen zuten Gipuzkoako azaleraren % 61,6; hau da, 121.925 hektarea. Kopuru hori Suedian, Finlandian edo Letonian erregistratutakoaren pareko da, baina Gipuzkoako biztanle bakoitzeko baso azalera askoz txikiagoa da, eta ingurune naturalaren gaineko presioa askoz handiagoa da biztanleria dentsitatearen ondorioz. Gainera, herrialde horietan espezie exotikoen ehunekoa askoz txikiagoa da Gipuzkoan baino.

Gipuzkoako orografia oso malkartsua da. Lautada handirik gabe, mendiak, mendilerroak eta muinoak elkarren ondoan daude. Itsasertzeko guneeetan eta mendilerro banatzaileen oinetan baino ezin dira aurkitu lautadak. Gipuzkoako azalera osoaren hamarren batek baino ez du % 15etik beherako malda.

Europako baso eskualde guztietatik, Euskadin bakarrik jasotzen dira baso landaketetako datuak urtez urte, eta urtez urte kalkulatzen da aprobetxatutakoaren, landatu denaren eta, oro har, baso egoeraren arteko aldea. Hala ere, baso ustiapenak ingurumenen dituen eragin positibo eta negatiboak buruzko informazioa biltzeko eta argitaratzeko beharra nabarmentzen da, baita gure lurraldeko basogintzari buruzko azterlan zientifikoaren beharra ere.

2022aren amaieran (oraindik ez dago 2023rako daturik), zuhaitzek estaltzen zuten Gipuzkoako azaleraren % 61,6; hau da, 121.925 hektarea. Kopuru hori Suedian, Finlandian edo Letonian erregistratutakoaren pareko da, baina Gipuzkoako biztanle bakoitzeko baso azalera askoz txikiagoa da, eta ingurune naturalaren gaineko presioa askoz handiagoa da biztanleria dentsitatearen ondorioz. Gainera, herrialde horietan espezie exotikoen ehunekoa askoz txikiagoa da Gipuzkoan baino.

Gipuzkoako orografia oso malkartsua da. Lautada handirik gabe, mendiak, mendilerroak eta muinoak elkarren ondoan daude. Itsasertzeko guneeetan eta mendilerro banatzaileen oinetan baino ezin dira aurkitu lautadak.

Gipuzkoako azalera osoaren hamarren batek baino ez du % 15etik beherako malda.

Malda handien orografia horretan, prezipitazio ugarien ondorioz higadura dago eta lurzorua mendi mazelatarantz mugitzen da. 2030erako Euskadiko Lurzorua Babesteko Estrategiak jasotzen duen bezala, Gipuzkoako azaleraren % 83,79k higadura arrisku handia edo oso handia du.

Espezieen ehunekoaren ikuspegitik, Gipuzkoako zuhaitz azaleraren % 40 inguru hostozabal autoktonoen espeziez osatuta dago, eta beste % 60 espezie exotikoen landaketak dira (konifero guztiak eta hostozabal exotikoen beste espezie batzuk, hala nola eukaliptoak, haritz amerikarra, etab.):

- a. Pagoak: % 15,03 (18.375 ha)
- b. Baso misto atlantikoak: % 16,26 (19.707 ha).
- c. Espezie bakar batek gaintzen du % 25 (hau da, intsinis pinuak) eta % 28,68an dago (33.734 ha).

Gipuzkoako baso inbentarioaren datu ofizialak azaldu ondoren, sektore baten etorkizuna planteatzerakoan ezinbestekoa da diagnostiko komun batetik abiatzea, bai eta indarguneen, ahulguneen, mehatxuen eta aukeren matrizea kontuan hartzea ere.

Kasu honetan, **MATRIZE** hori egiteko aintzakotzat hartu da ponentzia honetako agerraldietan bildutako informazio guztia.

2.1. INDARGUNEAK.

Zuhaitz azalera handia: Basogintza sektorea funtsezkoa da lurraldea mantentzeko, bai alderdi fisiko eta kulturaletik, bai ingurumenaren aldetik. Gipuzkoak zuhaitzez estalita dauka lurraldearen % 61,6, eta, horrenbestez, Suedia, Finlandia edo Letonia bezalako herrialdeekin konpara daiteke, aldeak alde.

Gipuzkoako ondasun erkidean duten garrantziagatik, baso azalerek ematen dizkiguten lehentasunezko onuratzat jotzen dira honako hauek: ura erregulatzea eta iragaztea, biodibertsitatea, lurzorua sortzea, CO2 hustubidea eta paisaia.





Landazabaleko paisaia: Gipuzkoako paisaia, mendeetan zehar giza jarduerak moldelatua, basoz, zelaiz eta landazabalez osatutako mosaiko bat da. Mosaiko hori lurzati oso txikiek eta zatikatuek osatzen dute batik bat, eta ingurumen balio eta paisaia balio handikoa da.

Funtzio aniztasuna izateko potentziala: Gipuzkoak duen zuhaitz azalerak potentzial multifuntzional handia dauka, eta horrek lagundu egin dezake klima aldaketaren ondorioak arintzen.

Baso azalerak zerbitzu ekosistemikoak eskaintzen dizkio gizarteari modu naturalean, beste onura kultural eta ekonomiko batzuez gain. Hala ere, baso kudeaketaren bidez, onura eta zerbitzu horiek guztiak ezin dira aldi berean maximizatu: batek gora egiten duenean, beste batek edo beste batzuek behera egiten dute. Horregatik, gizartearen interes orokorraren arabera lehenetsi eta hierarkizatu behar ditugu.

Zuraren deribatuen industria: Euskadik eta Gipuzkoak 1. eta 2. eraldaketako zuraren deribatuen industria dute, eta industria horren oinarrian, oro har, enpresa txiki eta ertainak daude, zeinak sektorearen oinarri garrantzitsu bat diren.

Barne produktu gordina: Basogintza-sektoreak oso pisu txikia du EAEko ekonomian BPGari eta langileen kontratazioari dagokienez, baina bere deribatuak Euskal Autonomia Erkidegoko barne produktu gordinaren % 1,5 dira, eta zuzeneko nahiz zeharkako enplegu ugari sortzen du (19.000 lanpostu inguru), bai eta jarduera ekonomiko mardul bat ere.

Ziurtatutako basoak: Gipuzkoan, 28.000 ha baino gehiago daude PEFC zigiluarekin ziurtatuta.

Klimatologia: Gipuzkoako klimatologia oso egokia da basoak berez hazteko.

Baso kudeaketa jasagarria: Gipuzkoako Foru Aldundiak baso kudeaketa jasagarriaren aldeko apustua egin du (laguntza-planak, dirulaguntzak, sektorearteko lankidetzak hitzarmenak...).

Asoziazionismoa: Bada elkarteak osatzeko oinarri bat baso ekoizleen edo jabeen artean, helburu berriei ekiteko prest.

Inbertsioa: Gipuzkoako basogintza sektorearen parte handi bat prest dago bertako basoen kudeaketan parte inbertitzaile izateko.

Lurraldean errotutako jabetza: Baso jabe gehienak jabe txikiak dira, eta familia transmisio bidez jaso dituzte lurak, eta sektorearekin oso lotura gutxi dute edo ez dute batere loturarik.

2.2. AHULGUNEAK.

Banda marroia, fusariuma eta konifero landaketen ahulezia: Gipuzkoako konifero landaketen osasuna tamalgarria da. Intsinis pinuaz gain, larizioa, Lawson altzifrea eta beste konifero gehienak oso egoera txarrean daude eta gainbehera nabarmena dute. Horrek erakusten du aurreko hamarkadetan egindako kudeaketa ez dela iraunkorra izan. Funtsezkoa da hori kontuan hartzea, bestelako baso politika bat ezarri ahal izateko, gure ekosistemen biologia kontuan hartuz.

Zatiketa eta atomizazioa: Gipuzkoako baso azaleraren % 78,5 esku pribatuetan dago, eta oso propietate zatikatuak eta atomizatuak ditu. Mosaiko horrek lursail txiki ugari biltzen ditu, forma askotakoak eta jabe ezberdinak





dituztenak. Lursail horien % 80k 10 hektarea baino gutxiago dituzte, eta % 50 baino gehiago 5 hektareaz azpikoak dira. Horrek zaildu egiten du kudeaketa, eta errentagarritasun ekonomikoa, berriz, murriztu.

Orografia: Gipuzkoako orografia malkartsuak zaildu egiten du baso kudeaketa, eta handitu egiten ditu kudeaketa horrekin loturiko kostuak.

Epe luzeak: Basogintza sektoreko inbertsioek beti eskatu izan dituzte aldi luzeak, 25 urtetik 100 urtera edo gehiagora bitartekoak, eta, beraz, baloratu beharra dago gaur egun klima aldaketak larriagotu dituen hondamendi naturalek eragindako arriskua.

Jabeen adina: Baso jabeen batez besteko adina oso handia da; % 55ek baino gehiagok 65 urtetik gora dituzte, eta % 34k, berriz, 75 urte baino gehiago.

Belaunaldi erreleboa: Zaila da baso jabeen belaunaldien arteko erreleboa egitea, eta gero eta gehiago dira landa ingurunekeo errealtatetik deskonektatuta dauden baso jabe berriak.

Gure habitataren osasun txarra: Eusko Jaurlaritzak 2020an argitaratutako "Naturaren egoera Euskadin" txostenaren arabera, baso mota guztiak egoera desegokian edo txarrean daude. Basoak basafloora eta basafaunako espezie askoren habitata dira; beraz, habitat horien egoera txarrak biodibertsitatea galtzea eragiten du.

Errentagarritasun txikia: Lursailak oso sakabanatuta daudenez eta txikiak direnez, eta egurraren prezioak gorabeherak dituenaz, Gipuzkoako zur industria ez da ekonomikoki errentagarria dirulaguntza eta laguntza publikorik gabe. Gaur egun, Gipuzkoako zuhaitz azalera lurraldearen % 61,6 hartzen du, eta barne produktu gordinaren (BPG) % 0,056 sortzen du. Elikadurarako erabiltzen den hektarea bakoitzak 80 aldiz onura ekonomiko handiagoa du.

Ziklo aldaketa baten aurreko erresistentzia: zuraren sektorea jada ez da hain errentagarria, eta alternatibak bilatu behar dira sektorea babesteko eta, kasu batzuetan, errentagarri bihurtzeko. Etorkizunerako ziurgabetasuna dago, eta ulergarria da.

Profesionalizazio maila baxua eta lan prekaritatea: sektorean langile falta eta profesional falta dago, eta ezbeharren tasa handia da.

Industria eta hostozabalak: Hostozabalen espezieentzako industria gabezia eta merkatu gabezia dago. Gipuzkoako basogintzaren balio katea ez dago optimizatuta. Industriak, ekoizpen bitartekoek eta produktuak ez dute garapenik izan, eta ez dira eraginkorrak. Gainera, merkatuko prezioen ondorioz, gure zur industria ez da lehiakorra, eta, beraz, Gipuzkoako baso ustiatagia agortzen ari da, bai ekoizpen eredian, bai produktuan.

2.3 .MEHATXUAK.

Klima aldaketa: Klima aldaketaren ondorioek areagotu egin dituzte hondamendi naturalak eta arrisku biotiko eta abiotikoak. Klima-aldaketak zuzenean eragiten digu. Deserregulazioa eragiten ari da prezipitazio erregimenetan, tenperaturan eta urtarokotasunean, eta horrek ondorio kaltegarriak izan ditzake baso azalera, besteak beste, uholde prezipitazioengatik, luiziengatik eta lurzorua galtzeagatik, uholdeengatik, lehorteengatik, bero kolpeengatik, intsektuen izurriteengatik eta suteengatik.

Arrisku horiei aurre egiteko, funtsezkoa da ingurune natural erresilientea izatea. Erresilientzia eta egokitzapena giltzarriak dira klima aldaketaren ondorioak minimizatzekeo.





Basoen kudeaketa txarrak eragin zuzena du Gipuzkoako ekosistema naturalen mantentzean. Hazkunde azkarreko monolaboreek, mozketa masiboek eta matarrasa bezalako jardunek lurzorua pobretu eta ezabatzen dute, higadura errazten dute, oxigeno ekoizpena eta karbonoa xurgatzeko gaitasuna murrizten dituzte, uraren kalitatea hondatzen dute, eta zaildu egiten dute mendien eskuragarritasuna eta mendiez gozatu ahal izatea. Gainera, suteen, izurriteen eta gaixotasunen arriskua areagotzen dute.

Ziurgabetasuna: Gaur egun, zalantza handia dago zer espezie landatu behar ote diren, kontuan hartuta pinuaren gaixotasunak, sektorearen egoera eta basogintza sektorearen inbertsio epe luzeak.

Sektorearen irudia: Gipuzkoako gizartea kaletartu egin da, eta aldenitu egin da baserri eta baso kulturatik. Deskonexio horrek basoei eta baso jarduera ekonomizistei buruzko ezjakintasuna eragin du, eta areagotu egin du sektorearen gaineko pertzepzio negatiboa.

Prezioen gorabeherak: Egurraren merkatua ezegonkorra da, prezio gorabehera handiak ditu eta lehiakortasun handia du nazioartean, eta hor ezin dugu lehiatu.

2.4. AUKERAK.

Bioekonomia: Karbono gutxiko ekonomiaranzko trantsizioak nabarmendu egiten du basoek eta egurrak baliabide biologiko berriztagarri gisa duten garrantzi erabakigarria.

Teknologia berriak: Egungo teknologiei esker, egurretik eratorritako produktuak balio erantsi handiagoarekin gara daitezke.

Baso azalerak zerbitzu ekosistemikoak eskaintzen dizkio gizarteari modu naturalean, beste onura kultural eta ekonomiko batzuez gain. Hala ere, baso kudeaketaren bidez, onura eta zerbitzu horiek guztiak ezin dira aldi berean maximizatu: batek gora egiten duenean, besteak behera egiten du. Horregatik, gizartearen interes orokorraren arabera lehenetsi eta hierarkizatu behar ditugu.

Sektorearen digitalizazioak garapen potentzialtasun handia du, eta horrek merkatuko kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzea dakar.

Baso produktu jasangarrien eskaria etengabe ari da handitzen, eta horrek etengabeko hedapen merkatua sortu du egurrerako, papererako, biomasarako, elikagaietarako eta basoetatik eratorritako beste produktu batzuetarako; horrek, halaber, epe luzerako inbertsio aukerak eskaintzen ditu, eta sektorearekin lotutako arloetan enplegua sortzea bultzatzen du (basogintza, zurgintza, hornidura katearen kudeaketa eta biodibertsitatearen kontserbazioa).

Merkatu nitxo berriak: Egurrarekin eraikitzeke merkatua garapen ahalmen handiko nitxo bat da Gipuzkoan, eta erosketara publiko berdea da merkatu hori garatzeko traktzio indarra.

Onura sozioekonomikoak: mendiek gure lurraldean ematen dizkiguten onurak lau motatakoak izan daitezke:

- Biodibertsitate moduan: biodibertsitate handiagoak ingurune naturalaren erresilientzia handiagoa sortzen du, eta, gainera, pertsonengan gaixotasunak eragiten dituzten patogenoetatik babesten gaitu.
- Ingurunea erregulatzeke zerbitzuak: uraren erregulazioa eta iragazketa, airearen kalitatea, CO2 hustubidea, tenperaturaren erregulazioa, lurzoruaen sorrera.
- Kultura zerbitzuak: paisaia, astialdia, estetika, alderdi sinbolikoak (folklore).
- Onura ekonomikoak: zura, onddoak eta fruituak ekoiztea.





Adostasunak: basogintzari buruzko txosten hau egiteak adierazten du Gipuzkoako Batzar Nagusiek adostasuna lortu nahi dutela beharrezko arau-erreformen bidez gauzatu ahal izateko —Gipuzkoako mendiei buruzko 7/2006 Foru Araua erreformatzetik hasita— Gipuzkoako lurraldearen etorkizuneko baso politikaren oinarriak ezartzeko modua.

3. ETORKIZUNEN GAKOAK.

Basoak ekosistema erabakigarria dira Gipuzkoan, eta oinarriko onura ekologikoak, ekonomikoak eta sozialak eskaintzen dituzte. Funtsezko eginkizuna dute biodibertsitateari eusteko, uraren eta klimaren zikloa arautzeko, eta lehengai jasagarriak hornitzeko.

Gipuzkoako gizarteak espero du Gipuzkoako basoak modu jasagarrian kudeatuko direla etorkizunari begira, hiru zutabeak kontuan hartuta: ingurumena, ekonomia eta gizartea.

Ildo horretan, Gipuzkoako gizarteak basoaren funtzioak optimizatzea espero du:

- a. Ingurumena babestea eta klima aldaketaren aurka borrokatzea.
- b. Bioekonomia bultzatzea.
- c. Gipuzkoako herritarren erabateko ongizatea bermatzea.

Hiru funtzio horiek Gipuzkoan modu orekatuan gauzatzeko, ekimen hauek proposatzen dira:

1. BASO INGURUMENA BABESTEKO ETA KLIMA ALDAKETAREN AURKA BORROKATZEKO.

1. Baso plangintza, lurraldea antolatzeko tresna gisa.

Hainbat ponentzian adierazi denez, ez dago baso plangintza egokirik lurralde antolamenduaren esparruan eta ez dago berariazko tresnarik. Argi dago beharrezkoa dela baso plangintza lurralde antolamenduan txertatzea, eta, hala, segurtasun juridikoko esparru ziur bat eskaintzea. Integrazio horrek izan behar du Gipuzkoako etorkizuneko edozein baso politikaren oinarria, eta araudi egonkor bat bermatu behar du epe luzera.

Krisi klimatikoaren eta Gipuzkoako eta Euskadiko baso errealitatearen aldaketen egungo testuinguruan, funtsezkoa da Euskadiko 1994-2030 aldirako Baso Plangintza betetzea. Etorkizuneko planak baso lurralde orekatua bermatu behar du espezieei dagokionez, kudeaketa publiko zuzena sustatu behar du, bai eta eragile pribatuekiko lankidetzaren ere. Gaur egun, badira informazio sistema oso aurreratuak, eta administrazioak erabil ditzake basoen erabileren arteko oreka bilatzen duten plangintza sinplifikatuak egiteko eta garatzeko.

Ponentzia batzuetan aipatutako mendi babeslearen figurari dagokionez, bere garaian Euskadiko 1994-2030 aldirako Baso Plangintzan eta hiru lurralde historikoetako Mendien Foru Arauetan aurreikusi zen figura bat da, erabaki oso zehatzak hartu behar diren gai puntualetarako. Nahiz eta figura hori ez den garatu aipatutako planean aurreikusita zegoen bezala, oso garrantzitsua da beste aukera bat ematea, ikuspegi berri bat: baso babesle gisa katalogatu behar dira lurraldeko akuiferoei hornitzen dizkieten ibilgu guztiak, hala lurrazalekoak (urtegiak eta presak) nola lurpeko ur masak hornitzen dituztenak. Ildo horretan, epeak birdefinitu eta parametro berriak ezarri behar dira, aurrerapen





zientifikoak kontuan hartuta eta habitatak eta ekosistemak leheneratzeari eta babesteari buruzko Europako araudi berria kontuan hartuta.

3.1.1.1. Baso misto atlantikoa.

Gizakiak helburu jakin baterako kudeatzen ez dituen eremuetan berez sortzen den basoa da. Haren bilakaera naturalak benetako irudia ematen digu naturak klima agertoki berrian gizakiaren ekintzarik gabe duen portaerari buruz. Hori kontuan hartuta, eta babestutako eta giza jarduera inbaditzailek gabeko habitatak eta ekosistemak zaintzeko premiarekin batera, hainbat baso ibilbide ezarri beharko lirateke, baso mota horren jasagarritasuna eta ingurumen babesa hobetzeko.

Baso landaketentzako aukera jasagarriak eta kudeaketa publikoko aukerak lortu nahian, Gipuzkoako Foru Aldundiak BSTK Fundazioa sortu du, zeinak Gipuzkoako basoen kudeaketa jasagarria sustatzen duen.

Lurraldeko basoak zaintzea eta kudeatzea helburu duen ekimen horrek interesen bat piztu du Gipuzkoako baso jabeen artean.

Azken hilabeteetan egin diren informazio bileretan, 1.600 lagunek baino gehiagok parte hartu dute, eta une honetan basoen jabe diren 650 familia inguruk agertu dute interesa BSTK Fundazioak eskaintzen dituen zerbitzuekin. Basoen jabe diren familia horien guztien artean, 7.000 hektarea inguruko baso azalera hartuko litzateke.

Beraz, egiaztatu da Gipuzkoan baso jabe askok laguntza behar dutela basoak kudeatzeko, eta, beraz, bai BSTK Fundazioa eta bai horretarako sortzen diren beste figura batzuk (kooperatibak edo jabeen elkarteak) beharrezko tresnak izan daitezkeela premia horri aurre egiteko.

BSTK Fundazioaren helburua da lurralde ikuspegia kontuan hartuta egitea kudeaketa, baso bakoitzak Gipuzkoa osoan duen rola definituz eta dibertsifikazioa bilatuz (hau da, mosaikotasuna). Horretarako, espezie eta baso ugari kudeatzen ditu askotariko egoeretan, eta espezie koniferoen eta hostozabalen artean oreka biologiko egokiari eusten saiatzen da, kudeaketa eredu desberdinak aplikatuz —erregularrak zein irregularrak—, arriskuak murriztea helburu gisa hartuta.

Era berean, BSTK Fundazioak Gipuzkoako lurraldea deskarbonizatzeko helburuak lortzen laguntzea du helburu, eta maximizatu egin nahi du kudeatzen dituen basoek karbono emisioak bahitzeko duten gaitasuna.

BSTK Fundazioaren beste helburu nagusietako bat da Gipuzkoako gizartea eta sektore ekonomikoak inplikatzeko eta sentsibilizatzea baso ondarearen kudeaketa jasagarria ziurtatzeko eta Gipuzkoako basoek eskaintzen duten potentziala aprobetxatzeko, eta, hala, herritarren ongizate fisiko eta emozionala landu ahal izatea naturarekiko kontaktuari esker.

BSTK Fundazioak hainbat sozializazio ekintza garatu behar ditu, Gipuzkoako gizartea aktiboki inplikatzeko gure basoen baterako babesean eta gipuzkoarrak ingurune natural horrekin konektatzeko. Ildo horretan, kooperatibek eta irabazi asmorik gabeko elkarteek lurraldea zaintzeko figura babesten duen esparru bat sustatu eta izan behar du.

3.1.1.2 Lurraldearen zatiketa.

Gipuzkoan, baso azaleraren % 78,5 esku pribatuetan dago (11.000 jabe inguru), eta % 50ek baino gehiagok 5 ha baino gutxiago ditu, nahiz eta jabetza duten erakunde handi batzuk ere badauden. Jabetza oso zatitua eta atomizatua





dago, eta horrek eragin zuzena du sinergiak sortzeari eta zurgintzaren eta landa ingurunearen errentagarritasun ekonomikoari begira.

Adina ere arazo estrukturala da sektorean; izan ere, jabetzaren % 55 baino gehiago 65 urte baino gehiago dituzten pertsonen esku dago eta ez dira sektoretik bizi, ez dute horren beharrik, eta % 34, berriz, 75 urtetik gorakoa da.

Testuinguru horretan, lurraldearen kudeaketa optimoa eta jasangarria lortze aldera, hainbat estrategia sustatu behar dira, besteak beste, jabeak kooperatiben bidez elkartzea edo BSTK fundazioak emandako tresnak. Gainera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko tokiko erakundeek lurzorua erostea sustatu behar da, jabetza lehengo mendeetako krisien aurreko egoerara itzuliz. Izan ere, krisi horietan, tokiko erakundeek lurzoru publikoa saldu behar izan zuten, ekonomikoki bizirik irauteko.

3.1.2. Baso kudeaketa jasangarria.

Baso kudeaketa jasangarriaren helburua da basoak eta baso lurrak administratzea eta erabiltzea, betiere bermaturik mantentzen direla biodibertsitatea, produktibitatea, birsortzeko gaitasuna eta bizitasuna. Gainera, bermatu behar da eutsiko diotela beren potentzialari —bai orain, bai etorkizunean— tokiko, estatuko eta munduko funtsezko funtzio ekologiko, ekonomiko eta sozialak asetzeko, beste ekosistema batzuei kalterik eragin gabe.

Baso kudeaketa jasangarria funtsezkoa da funtzio anitzeko basoak bermatzeko, eta baso mota guztiei aplikatu behar zaie. Kontuan izan behar ditu basoen funtzioak, eta jasangarritasunaren hiru zutabeak orekatu: ingurumena, gizartea eta ekonomia. Helburua da ondasun eta zerbitzuen ekoizpena maximizatzea, eta baliabide naturalen gaineko inpaktua minimizatzea.

Baso Kudeaketa Jasangarriko Plan Teknikoa da baso landaketetan jasangarritasun hori egiazta dezakeen dokumentu bat. Agiri horretan, jabeak edo kudeatzaileak kudeaketa formulekin loturiko konpromisoak hartzen ditu ezarritako epe baterako.

Gipuzkoako baso mendigunean ingurumenaren aldetik jasangarriak diren baso kudeaketako eredu guztietarako dago lekua; beraz, konbinatu ahal izango dira eredu horiek baso erresilienteak eta funtzio anitzekoak lortzeko, eta, hala, Gipuzkoako gizartearen beharrak aseko dituzten ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko.

Helburua da Gipuzkoako basoen funtzio aniztasunari eustea, hau da, ondo konbinatzea dirulaguntza publikorik gabe lehiakorra eta errentagarria izan daitekeen egur ekoizpena eta elikagaien ekoizpena, eta baita ere aisialdiko jarduerak, ingurumen hezkuntza eta biodibertsitatearen kontserbazioa, gizarteak modu erabatekoan jaso dezan Gipuzkoako basoen onura.

3.1.2.1. Hostozabalak.

Ponentzietan agerian geratu da hostozabalen basoak modu eraginkorrean kudeatu behar direla, ikuspegi ekologikotik zein ekonomikotik. Kalitatearen alde egitea, zuraren salmentan gardentasuna sustatzea eta ekoizleak espezie horiek kudeatzeko teknika jasangarrietan trebatzea funtsezko ekintzak dira hostozabalen espezieen balioa handitzeko.

Hostozabalen inguruan ekonomia garatua dagoen arren, hori ez da finkatu Gipuzkoan, eta horrek zaildu egin du ekonomia horren sustapena. Bertako hostozabalak baso alternatiba erakargari bihurtzeko, funtsezkoa da prestakuntza egokia izatea beharrezko kudeaketa aukerei eta teknikei buruz. Kalitate handiko egurra ekoiztea





prozesu zorrotza da, eta ezagutza espezializatuak, esku hartze arduratsuak, emaitzetan oinarritutako etengabeko hobekuntzak eta epe luzerako konpromisoa eskatzen ditu.

Era berean, planteatzen da beharrezkoa dela hostozabal egurraren industria eraldatzaile bat bultzatzea; izan ere, gaur egun, Euskadiko baso industria koniferetan dago ardatzuta gehienbat, baina ez dago hostozabaletara zuzendutako industriarik. Horrenbestez, balio kate bat garatu behar da hostozabalen espezieen bigarren eraldaketa horretan

3.1.2.2. Koniferoak.

Hostozabal basoak kudeatzeaz gain, ezinbestekoa da koniferoak kudeatzen jarraitzea, bertako hostozabalen eta fruta arbolen espezieekin pixkanaka ordezkatzeko, eta, horrela, gure ekonomia deskarbonizatzen laguntzeko eta Gipuzkoan gaur egun dagoen eta etorkizunean izango den elikagaien, babeslekuen, habitat osasungarrien eta bertako zuraren eskaria asetzeko. Garrantzitsua da espezieen arteko oreka mantentzea, betiere garapen jasangarriaren hiru zutabeak betetzen direla ziurtatuz: ingurumena, gizartea eta ekonomia.

3.1.2.3. Espezie mehatxatuen babesa.

Basoak ekosistema konplexuak dira, animalia eta landare espezie ugari dituztenak. Gipuzkoan hain zuhaitz azalera handia izan arren, 31 baso espezie galtzeko arriskuan edo kalteberen kategorian daude Arriskuan dauden Espezieen Euskal Zerrendan. IHOBek egindako gure habitaten balorazioan agerian geratu da Gipuzkoan dauden baso habitat interesgarri guztiak kontserbazio egoera desegokian daudela. Errealitate ukaezin horren aurrean, Gipuzkoako eta EAEko baso politika osoan nagusi izan behar du bertako espezieen eta parametro jasangarri garbiekin kudeatutako basoen aldeko apustuak.

Baso habitat bakoitzak bere fauna eta flora espezieak ditu. Hala, garrantzitsua da informazio zientifiko egokia izatea eta baso kudeaketa jasangarria modulatzeko, eta, horretarako, arriskuan dagoen espeziea edo habitata dagoen basora egokitzea.

3.1.2.4. Baso-larreetako artzaintza.

Baso-larreetako artzaintzan, artaldeek basoak eskaintzen dituzten baliabideak erabiltzen dituzte elikatzeko. Artzaintza eredu horrek animalien ongizatea areagotzen du, eta, aldi berean, onura asko ekartzen ditu, hala nola larrearen birsorkuntza areagotzea eta, ondorioz, lurzoru naturalean hezetasunaren atxikipena hobetzea.

Gipuzkoako baso azaleraren barruan, eremu gehiagotan sustatu beharko litzateke baso-larreetako artzaintza; izan ere, praktika horrek oihanpea baldintza hoberenetan mantentzen laguntzen du. Hala, murriztu egiten da sute arriskua, eta, aldi berean, baso ekosistemen biodibertsitateari eusten laguntzen zaio.

Oro har, baso-larreetako artzaintza sistemek diru sarrera ekonomikoak eman ditzakete, eta, aldi berean, ingurumen onura asko dituen sistema jasangarri bat sortu. Sistema horiek ondo administratzen direnean, aukera ugari eskaintzen dituzte, eta landa ekonomiaren garapena suspertzen lagundu dezakete.

3.1.3. Suteen aurkako babesa.

Baso misto atlantikoak gora egin duen heinean eta suteak prebenitzeko eta itzaltzeko teknikak hobetu diren heinean, tamaina eta larritasun handiko suteak ere gutxitu egin dira. Hala ere, klima aldaketak eszenatokia aldatzea





eta suteak gertatzeko probabilitate handiagoa dakartza berekin, eta arrisku nabarmena dute hiri eta baso interfazeko eremuetarako. Klima aldaketak areagotu egin du sute arrisku handia izaten den denboraldia, eta horrek larriagotu egiten ditu ondorio sozialak, ekonomikoak eta ingurumenaren alorrekoak. Beraz, funtsezkoa da behar bezala prestatzea. Suteen muturreko arriskugarritasuna, neurri handi batean, krisi klimatikoaren ondorio da. Hala ere, monolaborantza landaketek, eremu zabalen mozketek, arraseko mozketa moduko praktika oso inbaditzaileek, espezie exotikoekin egindako landaketek eta lurren desnaturalizazioak lehortu egin dituzte suteak izateko arrisku handiagoa duten lurraldeko ingurune batzuk, eta egoera hori lehenbailehen lehengoratu behar dugu.

Greenpeace erakundearen *Proteger el medio rural es protegernos del fuego* 2020ko txostenaren arabera (Landa ingurunea babestea sutik babestea da), paisaia kudeatua izatea da sua hasi aurretik eskura daitekeen abantaila estrategiko bakarrenetako bat. Horretarako, funtsezkoa da administrazioek baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak lehenestea baso kudeaketa jasangarria deritzon horretarako.

Sute arrisku gero eta handiagoa arintzeko, beharrezkoa da Gipuzkoako baso landaketak kudeatzea, lurraldeko ibai eta erreka ugarien arroetan eremu babestuak ezarritik. Hezetasun handiko eremuak dira horiek eta, hezetasun hori atxikitzen duen landaredi hostotsu batez inguratuta egonik, suebaki natural gisa jokatzeko dute. Ez dago lurzorua eta airearen hezetasuna atxikitzen duen landaretza bat baino suebaki hoberik.

Baso kudeaketa jasangarri hori funtsezko tresna da Gipuzkoako Lurralde Historikoan suteen prebentzioan lan egiteko, eta administrazio publikoek kudeaketa horretarako behar dituzten baliabideak bideratu behar dituzte.

Dagozkion prebentzio neurriak alde batera utzi gabe, Gipuzkoako Foru Aldundiak baditu suteei aurre egiteko edo itzaltzeko bitarteko edo tresna zuzentzaileak; esate baterako, helikoptero bat eta sistema antolatua bat, martxan jartzeko prest dagoena lurraldeko baso enpreekin lankidetzan. Hala ere, Gipuzkoako basozainen elkarteak ohartarazi du giza baliabide eta baliabide material gutxi dituztela mendiak zaintzeko, kudeatzeko eta suteen aurkako lanak egiteko. Ildo horretan, baliabide material eta giza baliabide horiek areagotu egin beharko liriteke.

3.1.4. Basogintzako I+G+Ba.

Erabakigarria da baso ikerketan inbertitzea, jasangarritasuna eta baso baliabideen eta zerbitzu ekosistemikoen erabilera eraginkorra lortzeko ardatz estrategiko gisa. Gipuzkoako basoak etorkizunean ere erresiliente eta multifuntzional izan daitezen, ezinbestekoak dira ikerketa, garapena eta berrikuntza honako eremu hauetan: (i) baso osasuna, (ii) espezie alternatiboak, (iii) zuraren kalitatea eta (iv) hobekuntza genetikoko planak.

3.1.5. Baso lurren kudeaketa publikoa.

Kontuan izanik baso jabetzaren % 78,5 jabe pribatuen esku dagoela, Gipuzkoako baso jardueraren etorkizuna sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzara eraginkorren mende dago, horrekin batera lurraldeko tokiko erakundeek lurzorua eskuratzea sustatuta.

3.2. BASOA BIOEKONOMIA BULTZATZEKO.

Klima aldaketak markatutako mundu honetan, ekonomia jasangarriago baterantz aurrera egitea ez da aukerakoa, premiazkoa baizik. Bioekonomia funtsezkoa da garapen jasangarri hori lortzeko.





Eusko Jaurlaritzaren Bioekonomia Estrategiaren arabera, bioekonomiatzat hartzen da jatorri biologiko eta berriztagarriko baliabideak —giza edo animalien kontsumora bideratzen ez direnak— bioenergia eta/edo biozerbitzu bihurtzea, haien balio erantsia handituta.

Gaur egun, eztabaidaezina da: beharrezkoa da karbono emisio gutxiko gizarte baterantz aurrera egitea, bai eta jatorri fosilekoak ordeztzeko gai diren lehengai organikoak eskaintzen dituzten biltegitratze lekuetarantz bide egitea ere.

Eta Gipuzkoak, baso lurraldea den aldetik, sustatu egin behar du basogintzako bioekonomia funtsezko zutabe bihurtzea lurraldearen etorkizuneko garapen sozioekonomikorako eta lurraldearen oparotasunerako, betiere jasangarritasunaren hiru zutabeen arteko oreka horren barruan.

1. Zura bultzatzea 0 km edo tokiko lehengai berriztagarri gisa.

Klima aldaketari aurre egiteko, karbono isuriak murriztu eta biltegitratuko dituzten materialak behar ditugu, eta egurra da Euskadin funtzio horiek betetzen dituen baliabide ugari bakarra.

Egurra material berriztagarria da, elikagai ekoizpenarekin lehiatu behar ez duena, eta, egungo deskarbonizazio inguruabarretan, funtsezko bi funtzio betetzen ditu: (i) CO₂-a biltegitratzea, izan ere, egurra altzarietan, eraikuntzan eta beste produktu batzuetan erabiltzean, karbonoa bahituta geratzen da artikuluen horien balio bizitzan zehar; eta (ii) ordeztzea, baliabide fosiletan oinarritutako produktuak ordeztuz.

Hori da egurrak bioekonomiari laguntzeko duen potentzial handia. Helburu politikoa da, beraz. Ikerketari, garapenari eta berrikuntzari esker, aukera handia eskaintzen zaio lurraldeari; izan ere, balioa ematen zaio egurrari, petroliotik deribatutako material ez- jasangarrien alternatiba gisa. Aukera bikaina dira, orobat, baso produktuak eta baso eremuetako zerbitzu ekosistemikoak ere.

Gipuzkoan, nagusiki basoz estalitako lurraldea den aldetik, beharrezkoa da gizarteak kontzientzia hartzea bertako egurrak eta haren eratorriek gipuzkoarren eguneroko bizitzan duten funtsezko eginkizunaz, bai eta ekoizpen eta kontsumo ereduak aldatzeko beharraz ere; gainera, kontuan hartu behar da baliabide horrek tokikoa edo 0 km-koa edo ahalik eta hurbilenekoa izan behar duela, karbono aztarna handiagoa saihesteko.

3.2.2. Balio erantsi handiko produktuak.

Klimaren erronkei aurre egiteko eta bioekonomia eta deskarbonizaziorantz aurrera egiteko, Gipuzkoak egurretik eratorritako produktuen balio erantsia handitu behar du, betiere biologikoki jasangarriak diren parametroetan oinarrituta. Gaur egun, bada behar adina teknologia baliabide biologiko berriztagarri horiek —hau da, gure baso baliabideak— oinarri biologikoko produktu berritzaile bihurtu ahal izateko, inoiz ez bezala. Oinarri biologikoko produktuak, petroliotik eratorritako ia produktu guztiak ordeztu ditzaketanak —ehungintza, kimika, energia, eta are eraikuntzatik datozenak ere, posible baita hormigoia, altzairua eta beste zenbait material ez-berriztagarri ordeztzea—

Gipuzkoako gizarteak apustu sendoa egin behar du balio erantsi handiagoko produktu horien alde, bai eta administrazioen aldetik ere, haiek izan behar baitute trakzio indarra alternatiba berriztagarrien erabilera eta kontsumo arduratsua sustatzeko, gehiago kutsatzen duten produktuak albo batera utzita.





Gipuzkoak aukeratu behar du zein sektoretan sustatuko duen aldaketa hori, eta ildo horretan, uste da eraikuntza eta kimika berdeak benetako eragina izan dezaketela Gipuzkoako ekonomiaren deskarbonizazioan.

Eraikuntzaren sektoreari dagokionez, esate baterako, beharrezkoa eta premiazkoa da administrazioek erosketa publiko berderako irizpideak ezartzea, eraikuntzan zuraren erabilera bultzatzen laguntzeko, material jasangarri eta berriztagarri gisa.

Finean, ahalik eta balio erantsi handiena duten produktuetara jo behar da ahal dela, Gipuzkoan edo lurraldetik ahalik eta gertuen ekoizten diren produktuetara.

3.2.3. Zura eraldatzeko industria sektorea.

Basogintza bioekonomia aukera paregabea da Gipuzkoarentzat. Zura eraldatzeko industria funtsezko tresna da bioekonomia hori garatzeko. Euskadik dagoeneko badu industria sare bat basogintza eta egurgintzaren balio katean, ekonomiaren deskarbonizazioan laguntzeko beharrezko gaitasunarekin.

Hori dela eta, beharrezkoa da administrazioak neurriak ezartzea eta, haien bidez, babes eta pizgarriak ematea enpresei ekoizpen prozesuetan inbertsioak eta egokitzapenak egiteko, balio erantsi handiagoko produktuak sortitzaten, betiere biologikoki jasangarria den kudeaketa batetik abiatuta.

3.2.4. Lankidetzaren publiko-pribatua.

Bioekonomiaranzko trantsizioak eragile publiko zein pribatu guztien lankidetzaren eskatzen du. Eraldaketa hori sektore pribatuak bultzatzea arren, administrazio publikoak esparru egoki bat sortu behar du, sektore pribatuak egokitzeko gaitasuna izan dezan, eta bioekonomian aurrera egiteko soluzio berritzaileen bilaketa gidatu behar du.

Funtsezkoa da ulertzea beharrezkoa dela lehengairik eta basogintza sektorearen enpresa-baliabiderik onenak izatea, talenturik eta gaitasunik bikainenak, hala lortuko baita iraultza digitala eta bioekonomiaren garapena bultzatzea. Testuinguru horretan, administrazioek funtsezko zeregina dute, helburu horiek lortzeko esparru egokia sortzeko.

5. Bioekonomia enplegua sortzeko elementu gisa.

Aurreikusten da basogintzako bioekonomiak gidatuko duela datozen hamarkadetan basoekin lotutako enplegu berrien sorrera, kudeaketa teknifikatu eta digitalizatuak eta baliabideak efizientziaz aprobetxatzeak bultzatuta.

Basoak zuzen kudeatzeak eta ondo aprobetxatzeak aukera bikaina ekar dezake enplegua eta giza kapitala Gipuzkoara erakartzeko.

Basoak hamaikatxo enplegu eta baliabide natural eskaintzen ditu jarduera batean baino gehiagotan, hala nola eraikuntzan, altzarien diseinuan, elikagaien ekoizpenean, energia jasangarriaren sorkuntzan, nekazaritzako elikagaien industrian eta turismoan. Landa garapen jasangarria basoen kontserbazioaren mende dago, inguruneak berreskuratzeko ikuspegitik begiratuta.

3.2.6. Belaunaldi erreleboa.





Basogintza sektorearen erronka nagusi eta zailenetako bat ustiatagietan belaunaldien arteko erreleboa bermatzea da, dela familiaren ondorengoen bidez, dela gazteak sektorean sartuz. Sektore hori belaunaldiz belaunaldi uztearen arrazoia da, batez ere, administrazioak errentagarria ez den eta ingurumena gutxi errespetatzen duen baso eredu bat sustatu duela. Egoera horri buelta emateko, norabidea aldatu behar da administrazioaren baso politiketan. Basogintzaren lehiakortasunaz gainera, funtsezkoa da prestakuntza sektorearen etorkizunerako. Kudeaketan, ekoizpenean, teknologia berrietan eta digitalizazioan trebatzea erabakigarria da basogintza sektorearen lehiakortasuna hobetzeko.

3.2.7. Ikerketa eta teknologia.

Enpresa askorentzat, gero eta premiazkoagoa da teknologia eta estrategia berritzaileak txertatzea beren ekoizpen eta kudeaketa prozesuetan, ez hazkundera bermatzeko bakarrik, baita haien biziraupena bermatzeko ere.

